



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2021/11/23ean EGINDAKO OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 23/11/2021.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaitoa Aguiriano

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2021eko azaroaren 23a, arratsaldeko 18:00, telematikoki, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaietara buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Ander Errarte eta Leire San Vicente.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 23 de noviembre de 2021, telemáticamente quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Ander Errarte y Leire San Vicente.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAB0M9N.4nSs>

2021/01/23
Ohiko Udalbatza
PlenoPleno Ordinaria

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2021/06/22, ohiko bilkura; 2021/06/22, ezohiko bilkura; 2021/07/22, 2021/09/29 eta 2021/10/14.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2021eko azaroaren 16ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Berriaz eman da 19. kreditu aldaketa espedientearen onartzeko Alkate erabakiaren berri.

3.- 20. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 20. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientearen aplikagarri zaien araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundearen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrak.

Era berean, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onepenen proposamena irakurri dira.

Aztertu eta bototara jarrita, bertaratutako udal batzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 20. espedientearen onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapituluko laburpenaren arabera.

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0200.120.326.10.01 2021	OINARRIZKO ORDAIN:MUSIKA ESKOLA	1.888, 56	1.348,98	539,58
1 0200.120.333.10.01 2021	OINARRIZKO ORDAIN:KULTUR ETXEA	1.888, 56	1.348,98	539,58
1 0200.121.326.10.01	DESTINO OSAGARRIA:MUSIKA	763,88	545,62	218,26

2021/01/23
Ohiko Udalbatza
PlenoPleno Ordinaria

2021	ESKOLA			
1 0200.121.326.10.02 2021	BERARIAZKO OSAG:MUSIKA ESKOLA	3.003, 75	2.468,73	535,02
1 0200.121.333.10.01 2021	DESTINO OSAGARRIA:KULTUR ETXEA	763,88	545,62	218,26
1 0200.121.333.10.02 2021	BERARIAZKO OSAG:KULTUR ETXEA	3.003, 75	2.468,73	535,02
1 0200.160.333.10.01 2021	GIZARTE- ASEGURANTZA:KUL TUR ETXEA	1.906, 16	1.906,16	0,00
1 0200.160.342.20.01 2021	GIZARTE- ASEGURANTZA:KIRO LDEGIA	25.135 ,93	5.000,00	20.135, 93
1 0200.131.333.20.01 2021	ALDI BATERAKO PERT:IBARRAUNDI MUS.	24.602 ,14	2.707,16	21.894, 98
1 0100.221.161.00.02 2021	UR PATZUJERGOA	5.787, 64	5.000,00	787,64
1 0600.422.337.20.01 2021	APORTAZIOA: EKKO PROGRAMA	9.461, 60	9.461,60	0,00
1 0200.160.332.10.01 2021	GIZARTE- ASEGURANTZA:LIBU RUTEGIA	16.568 ,23	14.000,0 0	2.568,2 3
1 0600.480.326.00.01 2021	DIRU LAGUNTZA:"KONEKT ATU" ZURE IKASTETXE	2.000, 00	2.000,00	0,00
1 0500.471.430.10.01 2021	DIRU LAGUNTZA:MERKAT ARITZA ELEKTRONIKOA	8.000, 00	8.000,00	0,00
1	DIRU			0,00

2021/01/23
Ohiko Udalbatza
PlenoPleno Ordinaria

0400.481.431.10.01 2021	LAGUNTZA:FERIXA	2.000, 00	2.000,00	
Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0200.160.326.10.01 2021	GIZARTE-ASEGURANTZA:MUSIKA ESKOLA	1.906, 16	1.906,16	0,00
1 0200.160.912.00.01 2021	GIZARTE-ASEGURANTZA:LIBERATUAK	15.897, 96	4.542,26	11.355, 70
GUZTIRA		124.57 8,20	65.250,0 0	59.328, 20

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0100.211.933.00.01 2021	MANTENIMENDUA: ETXEAK-LOKALAK	10.178,90	1.000,00	11.178, 90
1 0200.231.912.00.01 2021	DIETAK,LOKOMOTIBO GASTUAK:ZINEGOTZIAK	7.500,00	2.000,00	9.500,0 0
1 0300.480.231.31.01 2021	DIRU LAGUNTZA:ENERGIA BONOA	0,00	30.000,0 0	30.000, 00
1 0100.622.920.00.02 2021	UDALETXEA	162.058,0 0	25.000,0 0	187.058, 00

2021/01/23
Ohiko Udalbatza
PlenoPleno Ordinaria

1 0100.227.172.00.37 2021	ERREKA GARBIKETA	0,00	7.250,00	7.250,0 0
GUZTIRA		179.736,9 0	65.250,0 0	244.986 ,90

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

4.- 2019-2023 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 4/2021 ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

2021eko azaroaren 3an (Sarrera-erregistro zk.: 1947/2021), EAJ/PNV Udal taldeak baliabide ekonomiko mugatuak dituzten pertsona eta familientzat etxebizitzako gastu energetikoak ordaintzeko laguntza sozialeko programa berri bat sortzeko proposamena egin du.

Programa horren zati bat beste hiru programatarako esleitutako kredituarekin finantzatu nahi da; izan ere, programa horiek 2021eko Plan Estrategikoan aurreikusi baziren ere, ez dira gauzatuko.

Era berean, Kultura eta Kirolak batzorde informatzaileak programa berri bat jasotzeko proposamena egin du: "Gabonetako apaingarrien lehiaketa".

Programa hori "Eskoriatzan egiten diren programa eta kultur jardueretarako dirulaguntzak" programari esleitutako kredituaren zati batekin finantzatu nahi da.

Eskaera horiei erantzunez, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak eta Kultura eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenen arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 3. LERRO ESTRATEGIKOAN: GIZARTE EKINTZA, ondorengo laguntza programa sartzea:

LL) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ENERGIA BONOIA

• HARTZAILEAK: Baliabide ekonomiko mugatuak dituzten Eskoriatzako norbanakoak eta familiak.

2021/01/23
Ohiko Udalbatza
PlenoPleno Ordinaria

- HELBURUA: 2021-2022 neguan etxebizitzetako energia eta gas gastuaren igoera ordaintzeko laguntzak.
- DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.
- 2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 30.000 euro.
- FINANTZIAZIOA:

BIGARRENA.- Ondorengo programei baja ematea horietarako kreditua aurreko puntuko programara aldatzeko, eta, horrela, aurreikusitako kostuaren zati bat finantzatu:

1. LERRO ESTRATEGIKOA: E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: FERIXA
 HARTZAILEAK: Arizmendi Koop. Elkartea
 HELBURUAK: Arizmendi Koop. Elkarteari diruz laguntzea urtero antolatzen duen Ferixak sortutako gastuak finantzatzeko.
 LORTU GURA DENA: Gastronomia, artisautza eta euskal folklorea protagonista dituen euskal feria tradizionala sustatu eta zabaltzea.
 DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.
 2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.000 euro.
 FINANTZIAZIOA: 0400.481.431.10.01 partida

6. LERRO ESTRATEGIKOA. HEZKUNTZA SUSTAPENA: E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: "KONEKTATU" ZURE IKASTETXEAREKIN.
 HARTZAILEAK: Eskoriatzako ikastetxeak eta horietan ikasten ari diren Eskoriatzan erroldatutako ikasleak.
 HELBURUA: Terminalen erosketa, Interneterako konektibitatea edo biak finantzatzea Eskoriatzako lehen hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek ikasketak telematikoki egin ahal izan ditzaten COVID-19aren agerraldiren bat izanez gero.
 LORTU GURA DENA: COVID-19aren ondorioz sortutako kalteberatasun ekonomikoko egoeran daudela egiaztatzen duten ikasleei eten digitala arintzea.
 DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena edo norgehiagoka, dagokionaren arabera.
 2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.000- euro.
 FINANTZIAZIOA: 0600.480.326.00.01 2.000 € (interneterako konektibitatea)

7. LERRO ESTRATEGIKOA. EKONOMIAREN ETA GIZARTEAREN SUSTAPENA I) PROGRAMAREN DESKRIPZIOA: MERKATARITZA ELEKTRONIKOAREN SUSTAPENA
 HARTZAILEAK: Eskoriatzan kokatutako autonomoak eta 20 langile baino gutxiagoko enpresak.
 HELBURUA: Enpresei merkataritza digitalean sartzeko laguntzea.
 LORTU GURA DENA: Salmentak erraztea, merkaturak zabaltzea eta enpresek eskaintzen dituzten produktuak edo zerbitzuak etxez etxe saltzeko laguntzea online salmentaren bidez.
 DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.
 2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 8.000,00 euro.
 FINANTZIAZIOA: 0500.471.430.10.01

HIRUGARRENA.- 1. LERRO ESTRATEGIKOAN: KULTURA DINAMIZAZIOA, ondorengo laguntza programa sartzea:

G) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: GABONETAKO APAINGARRIEN LEHIAKETA
 HARTZAILEAK: Herritarrak orokorrean.
 HELBURUA: Botatzeko diren hondakinei erabilpen berri bat emanda herriko espazio publikoak apaintzeko lehiaketa bat antolatzea.
 DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 900 euro.
FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.00.01 partida

LAUGARRENA.- Ondorengo programari 900 euroko murrizketa egitea aurreko puntuari jarraituz sartutako programa finantzatzeko:

1. LERRO ESTRATEGIKOA, KULTURA DINAMIZAZIOA: A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzan egingo diren programa eta kultur jardueretarako dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: Deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

HELBURUA: Urtean zehar Eskoriatzan egiten diren kultur programa eta jardueri diruz laguntzea.

LORTU GURA DENA: Herrian kalitatezko kultur jarduerak eskaintzea eta herritarren eta kultur elkarten parte hartzea eta lankidetzatza sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.100 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.00.01 partida.

5.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratura egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboiei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

- Preskripzioagatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 55.498,26 €.

21/04/01 etik 21/09/30 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK

IFZ	KONTZEP TUA	URT EA	LIKIDAZIOA	KUOTA	ERREKARGOA	GUZTIRA	ZERGATIA
J01117555	JARDUERA ENPR.	2016	36 A009307 4208	615,12	123,02	738,14	PREZKRIZIOA.GEA
E20873709	JARDUERA ENPR.	2013	33 A028678 820O	11.408,36	2.281,67	13.690,03	PREZKRIZIOA.GEA
E20873709	JARDUERA ENPR.	2014	34 A028678 820N	11.408,36	2.281,67	13.690,03	PREZKRIZIOA.GEA
E20873709	JARDUERA ENPR.	2015	35 A028678 820M	11.408,36	2.281,67	13.690,03	PREZKRIZIOA.GEA
E20873709	JARDUERA ENPR.	2016	36 A028678 820L	11.408,36	2.281,67	13.690,03	PREZKRIZIOA.GEA
GUZTIRA				46.248,56	9.249,70	55.498,26	

- Beste arrazoiengatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 10.213,07 €

IFK	KONTZEPTUA	URTEA	ZENBATEKOA	ZERGATIA
H-75078113	003/2020/01/1045	2020	429,61	Ur kontagailu komunitarioa da. Tarifa aldaketa
H-75078113	003/2020/02/1047	2020	501,90	Ur kontagailu komunitarioa da. Tarifa aldaketa
B20570230	028/2020/81/90N F1	2020	4.640,78	2020HBLH lizentziari uko egin da
B20570230	028/2020/81/90N F2	2020	4.640,78	2020HBLH lizentziari uko egin da
GUZTIRA			10.213,07	

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiaren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

6.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

2021/01/23
Ohiko Udalbatza
PlenoPleno Ordinaria

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2021eko hirugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

7.- ARIZMENDI KOOP. ELKARTEAK 2017an JARRITAKO BERMEA ITZULTZEKO ESKAERA.

2017ko ekainaren 27an egindako Udalbatzarraren erabakiz esleitutako Haur Eskolako (0-3 urte, haur hezkuntzako lehenengo zikloa) zerbitzua kudeatzeko kontratua zuzen betetzeko berme gisa 2017an jarritako fidantza itzultzeko eskatu du Arizmendi Koop. Elkarteak.

Hezkuntza arloko teknikariak egindako txostena ikusita, kontuan izanik kontratuaren berme epea amaitu dela eta bertatik sortutako betebeharrak egoki bete direla, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 0 eta 3 urte arteko Udal Haur Eskola zerbitzua kudeatzeko esleitutako kontratuarengatik Arizmendi Koop. Elkarteak 2017an jarritako bermea itzultzea. Fidantza hori 734,50 eurokoa da.

8.- EAJ/PNV UDAL TALDEAREN ESKARIZ ERAKUNDE ADIERAZPEN PROPOSAMEN, AZAROAREN 25a, 2021eko EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO EGUNA DELA-ETA.

Hitza emanda, Josu Ezkurdiak adierazi du bere taldeak EUDELEk proposatutako adierazpen instituzionala aurkeztu duela, emakumeen aurkako indarkeria, duen garrantziagatik eta tamainagatik, ahalik eta adostasun handienarekin aztertu behar dela uste duelako, eta EUDELEk adostasun hori ordezkatzeko duela administrazio publikoaren eremu guztietan parte hartzen duten indar politiko guztiak integratzeagatik.

Ondoren transkribatzen da onartzeko proposatzen den adierazpenaren testua:

*AZAROAREN 25ERAKO ADIERAZPEN EREDUA, 2021EKO
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA AURKAKO EGUNA
DELA ETA*

2021/01/23
Ohiko Udalbatza
PlenoPleno Ordinaria

Emakumeen aurkako indarkeria lardierako tresna indartsua da, emakumeei zuzendua, indarrean dauden genero-arauak desafiatu eta eralda ez ditzaten. Mehatxurako tresna hori zuzenean emakumeengan erabiltzen da, baina baita haien gertuko pertsona maitatuengana ere, min handiago sortzeko modu gisa. Kalkuluaren arabera, bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik indarkeria jasaten duten EAEko hamar emakumetik seik seme-alaba adingabeak dituzte, eta horiek ere biktima bihurtzen dira.

Indarkeria bikarioa esaten zaio emakumeari, hirugarren pertsonak baliatuz, kalte psikologiko handiena eta larriena eragiteko egiten zaion biolentzia motari, zeinak ankerkeria-maila gorena lortzen duen haien erailketarekin (seme-alabak, ama, aita, egungo bikotekidea, etab.). Istanbulgo Hitzarmenean ezarritakoa aplikatuz, kasu horiek ere genero-indarkeriaren parte gisa ulertzen dira, seme-alabei egindako kalteak erasotzaileek emakumeei tratu txarrak transmititzeko tresna bihurtzen diren heinean.

Azken lege-aldaketek dagoeneko jasotzen dute figura hori, biktima adingabeak babesteko neurriak sortzeari eta hedatzeari dagokionez. Hala ere, oraindik ere beharrezkoa da genero-indarkeria ukatzen duten, kasu horietan seme-alaben arriskua gutxiesten duten eta indarkeria horri aurre egiteko tresna juridikoak zalantzan jartzen dituzten diskurtsoen eta jarreraren aurka ohartaraztea. Jarrera horiek adingabeen eta emakumeen birbiktimizazioan eragiten dute, haien salaketak susmopean jartzen dituzte, amak zigortzen dituzte, haien testigantza gutxiesten dute eta aitaren guraso-ahalaren eskubidea babesten dute, emakumeen eta adingabeen segurtasunaren eta indarberritzearen gainetik.

Emakumeen aurkako indarkeria beren seme-alaben bidez sistematikoki egikaritzeko modu horren aurrean, bai eta emakumeak kontrolatzeko, hertsatzeko eta kaltetzeko modu guztien aurrean ere, euskal erakundeok indarkeria horri aurre egiteko erantzukizuna dugu, kontuan hartuta ez direla gertakari isolatuak, egiturazko desberdintasun-egoera bati erantzuten diotela, eta egoera horri ikuspegi feministatik heldu behar zaiola.

Horregatik, Eskoriatzako Udalak honako konpromiso hauek hartu nahi ditu:

- Indarkeria bikarioaren errealitate hori agerian jartzen eta behar bezala artatzen laguntzea,

besteak beste, Istanbulgo Hitzarmenak jasotzen dituen indarkeria-bideen biktima adingabeak koordinazio protokoloetan eta indarkeria matxistaren biktimak artatzeko protokoloetan txertatzea eta protokolook eguneratzea.

- *Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak hautematen eta esku-hartze goiztiarra egiten laguntzea, udal-zerbitzuen bidez, beste eragile batzuekin lankidetzan (hezkuntza-, osasun- eta polizia-agentek, etab.), eta emakumeek beren ardurapean dituzten adingabeekin eta kaltetutako beste pertsona batzuekin behar dituzten beharrei eta baldintzei erantzutea.*

- *Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak babesteko eta esku hartzeko prozesuak hobetzea, beren eskumenen esparruan, ikuspegi feminista duen sektore arteko abordatze integral eta holistikotik.*

- *Neurri guztien erdigunean jartzea biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea, eta laguntza integrala ematen laguntzea, prozedura judizialarekin duten inplikazio- edo lankidetz-maila edozein dela ere.*

- *Toki-administrazioko langileak berdintasunari buruzko prestakuntza jaso dezaten bultzatzea, bereziki emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erantzuten diharduten langileei, genero-ikuspegia eta giza eskubideen ikuspegia aintzat hartuz .*

- *Lanean jarraitzea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako, eta, ondorioz, haien seme-alaben aurkako, herri-itun bat lortzeko, herritar guztien jarrera aktiboa behar dugulako indarkeria matxistarak gabeko gizarte bat lortzeko.*

Herritarrei gogorarazi nahi diegu indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabideen sarea eskuragarri dagoela, besteak beste, SATEVI (900 840 111) indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzuaren eta ZEUK ESAN (116 111) haur eta nerabeentzako telefono eta online orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzuaren bidez.

Era berean, herritarrei dei egiten diegu azaroaren 25ean bat egin dezaten emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta beren udalerrietan deitutako mobilizazioekin

Proposamena bototara jarrita, mozio bezala onartu da EAJ/PNVko 6 zinegotziek alde bozkatuta eta EH BILDUko 3 zinegotziek, aurka.

9.- EH BILDUREN ESKARIZ ERAKUNDE ADIERAZPEN PROPOSAMENA
“AZAROAREN 25a, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO
NAZIOARTEKO EGUNA” DELA-ETA.

Hitza eman ondoren, Eluskak eskerrak eman dizkio EAJ/PNV taldeari aurreko puntuan landutako adierazpena adosteko aukera eman dielako. Jarraian, adierazi du ez dela adostasun hori lortu, bere taldearentzat, EUDELen proposamena zuzena iruditu arren, oso oinarritzakoa eta orotarikoa delako, eta uste dutelako gizartea konpromiso zehatzagoak eskatzen ari dela. Gaineratu du guztiz beharrezkotzat jotzen dutela Eskoriatzako feministen taldearekin eta emakume-elkartarekin hitz egitea, haien ikuspuntua ezagutzea eta zer nahi duten eta zertan lagun dezakegun jakitea.

Ondoren transkribatzen da onartu dadin EH BILDUK proposatzen duen adierazpenaren testua (Eluskak hitzez hitz irakurri du xedapen zatia):

AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA
ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2003tik aurrera, emakumeonganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 101 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Izen zehatzik eman gabe, guztiak garrantzitsuak.

Urte honetan ere bereziki aipatu nahiko genuke, izebergaren punta diren erailketa hauetaz gain, ohikoak bilakatu direla gizonetzkoek taldean egiten dituzten bortxaketei buruzko salaketa publikoak. Hala ere, eraso bakoitzaren aurrean, hauek salatu dituen Mugimendu Feminista saretu bat atera da kalera. Gaurko egunean ere, talde hauen lana eta ezinbestekotasuna azpimarratu behar dugu.

Urte luze hauetako lana izan da Indarkeriari maskara kentzea. Ez da lau zororen kontua. Sistema patriarkal sendo baten ondorioa baizik. Indarkeria matxistei buruz egindako makro-inkestak datu larria mahai-gaineratu zuen: bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar.

Istanbulgo Hitzarmena ekarri nahi dugu gogora, urte luzeetan zehar Mugimendu Feministak egindako Indarkeriaren ikuspegi zabalpena bildu zuen lehen tresna loteslea. Hitzez hitz esaten du "emakumearen aurkako indarkeriagatik" ulertu beharko dela giza eskubideen urraketa bat eta emakumeen aurkako diskriminazio modu bat, eta generoan oinarritutako indarkeria-ekintza guztiak izendatuko direla, emakumeentzat kalte edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko edo

ekonomikoak dakartzatenak edo eragin ditzaketenak, ekintza horiek egiteko mehatxuak barne, hertsapena edo askatasuna arbitrarioki kentzea bizitza publikoan edo pribatuan.

Azaroaren 25ean, nazioarteko tresna lotesle hau aintzat hartuta, emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela adierazteko eguna da, eta, hori ez ezik, indarkeria sorrarazten duten eragile guztien aurka ere bagaudela esatekoa.

Bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde gaudelako. Indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna da, jendartearen normalizatuen dauden sotileneetatik hasita, hala nola ukitzeak; ahozko lizunkeriak; publizistek eta mass-mediak emakumeen gorputzari ematen dieten erabilerak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirateke, eta, esparrurik bortitzenean, erailketak.

“Normaltasunera” bueltatzen ari garela zabaltzen ari den egun hauetan, Indarkeria Matxista pairatzen duten horientzat, ordea, ospatzeko normaltasunik ez dagoela adierazi beharrean gaude.

Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea, eguneroko zereginetan hasiz, gure inguru hurbilenean jardunez. Eta, gure kasuan, Eskoriatzako Udaletik horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta politikoak aktibatze konpromisoa hartu behar dugu, berdintasun-unitateak sustatuz eta haiei laguntza eskainiz, berdintasun-teknikarien egonkortasuna edo kontratazioa bultzatuz, edota emakumeen parte-hartzerako guneak sustatuz, hala nola, emakumeen etxeak eta txokoak, ahalduntze-eskolak, jai parekideak eta abar.

Guzti honengatik, indarkeria matxista gertakarietan funtzionamendu protokoloek erabiltzen dituzten mekanismo guztiak egokiak izatea da giltza; beti ere, indarkeria mota hau pairatzen duten emakumeen ahalduntzea helburu duten ikuspuntu batetik. Horretarako, instituzio publikoez gain, gai honetan adituak diren pertsonen eta mugimendu feministen parte hartzea beharrezkoa da

ezarritako protokoloekin lagundu dezaten, eta azken batean, berdintasunezko etorkizun baterantz abiatu gaitezen.

Nabarmendu nahi dugu, azken aldian, sare sozialetan eta espazio publikoetan, kide feminista askoren kontrako jazarpen handia ari garela ikusten. Ez da kasualitatea.

Espazio publikoa hartu eta diskurtso eraldatzaileak mahai gaineratzen dituzten emakume feminista hauek jazartzea, antolatutako gorroto eta indarkeria matxista kanpaina baten ondorioa da. Eremu digitalean gertatu diren jazarpen kasu hauek gutxitzera jo izan dugu, baina duten garrantzia eta emakume hauen jarduna eteteko duen asmoa salatzekeo garaia da. Horregatik, lerro hauek erabili nahi ditugu, espazio horietan dauden kideei haien lana eskertu eta alboan gaituztela esateko.

Mugimendu Feministak, egun honen bueltan antolatuko dituen mobilizazioetan eta ekimenetan parte hartzeko deia egiten amaitu nahi ditugu lerro hauek.

Horregatik, Eskoriatzako Udalak, ondorengo konpromisoak bere egiten ditu:

1.- Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.

2.-Ez du murrizketarik egingo 2022eko berdintasun-aurrekontuetan, eta gainera, berdintasun-unitateak egonkortzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du.

3.- Jai giroan eman litezkeen erasoei erantzuteko eta hauek prebenitzeko protokoloa sortzeko, eta hori Mugimendu Feministarekin, Herriko Mugimendu Feministarekin, Emakume Elkartekin eta Jai Batzordearekin batera egiteko konpromisoa hartzen du.

4.- Herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu.

5.- Neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabeakuntza jarduerak (kultura alorretik barne) abian jarriko ditu, hainbat gai jorratu ahal izateko, besteak beste, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.

2021/01/23
Ohiko Udalbatza
PlenoPleno Ordinaria

6.- Mutilei, gazteei eta gizon helduei zuzendutako lanketa berezituak abiatzeko (kultura alorretik barne) konpromisoa hartzen du, afektibitatea, harreman ereduak, maskulinitate ereduak, rol sexistak gainditzeko estrategiak, eta parekidetasuna lantzeko besteren artean; eta horretarako programa zehatzak aktibatzeko konpromisoa ere hartzen du.

7.- Erakunde honetatik, hau da, Eskoriatzako Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.

Ondoren, Josu Ezkurdiak adierazi du eskertu egiten duela proposamen zehatzak egitea; esan du, bere ustez, proposamen horiek udal teknikariekin ere aztertu eta tratatu behar direla; teknikariek ere izango dutela zer esana eta, horregatik, EH BILDUri eskatu dio proposamen horiek batzorde batera eraman ditzala, eztabaidatu eta azter daitezen. Amaitzeko, esan du bere taldeak aurka bozkatuko duela, baina ez proposatzen denarekin ados ez daudelako, baizik eta uste duelako proposamen horiek zerbitzu teknikoekin batera aztertu behar direla batzorde batean.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. Aurkako 6 botorekin (EAJ/PNV) eta EH BILDUren 3 zinegotziek alde bozkatuta, proposamena ez da onartu.

10.- GALDE-ESKEAK.

Ez dago galdera edo eskaririk.

Alkateak jakinarazi du EUDELetik Euskararen Egunari buruzko erakunde-adierazpenaren proposamena jaso duela, eta gainerako taldeei helaraziko diela, adostasuna lortu ahal izateko. Bilkura amaitutzat eman du, bertaratutako guztiak gonbidatu ondoren azaroaren 25erako (Emakumeen aurkako indarkeria desgerraraztearen aldeko eguna) eta abenduaren 3rako (Euskararen eguna) antolatutako ekitaldietan parte hartzera.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat jo da bilera, datan azaltzen den eguneko arratsaldeko 18:20ean. Eta hori guztia nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en las siguientes fechas: 22/06/2021 sesión ordinaria, 22/06/2021 sesión extraordinaria, 22/07/2021, 29/09/2021 y 14/10/2021.

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 16 de noviembre de 2021.

De forma expresa se da cuenta de la resolución por la que se aprueba el expediente de modificación de créditos N° 19.

3.-EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS N° 20

Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos N° 20 , mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento.

Se da lectura al Informe emitido por la Secretaria-Interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por los arts. 28 a) y 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Igualmente se da lectura al informe favorable y propuesta de aprobación formulada por la Comisión Informativa de Personal y Hacienda.

Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, con el voto a favor de todos los concejales presentes, el Pleno ACUERDA :

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, nº 20 , mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Capítulos.

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0200.120.326.10.01 2021	OINARRIZKO ORDAIN:MUSIKA ESKOLA	1.888,56	1.348,98	539,58
1 0200.120.333.10.01 2021	OINARRIZKO ORDAIN:KULTUR ETXEA	1.888,56	1.348,98	539,58
1 0200.121.326.10.01 2021	DESTINO OSAGARRIA:MUSIKA	763,88	545,62	218,26

2021/01/23
Ohiko Udalbatza
